

Harrapazka Eguna: iñistorrak urrea balio zuenean!*

(*Erreportaje honetako testuaren zatietako batzuk Argia Astekarirako eta Urumeako Kronikarako egindako erreportajeetan ere kontsulta daitezke.)

Egileak: **Xabier Iriarte Ansorena.**
Iñaki Sanz-Azkue.

Aspaldi bukatu ziren iñistorra ebakitzeko egunak Hernanin. Iñistorra (*Pteridium aquilinum*), iratzea edo garoa izenekin ere ezagutzen dena, ezinbesteko lehengaia zen ganadua zuen baserritarrarentzat. Iñistorrik gabe ezin bizi, eta irailaren erdi aldera hasten ziren mozten, hosto-gorritzen hasten zuenean.

Ukuiluan zabaltzen zuten iñistorra. Ganaduaren azpitarako (oheak egiteko) gauza hoberik ez omen zen.

Azpitarako erabilitakoarekin egiten zen simaurra ere, baratzerako ongarria.

Egun, gutxi dira, ordea, iñistorra moztera iñistor-tokietara joaten direnak. Askok, oraindik, iñistorrak izan zuen garrantziaz gogoratzen direnak: *Urrea baino estimatuagoa huen!*

Hau dela eta, azken hamarkadetako Hernani urbanoan, iñistor-metak, bizitzeko modu baten azken arrastoak bihurtu dira.



Iñistor-meta ezkerrean, eta belar-metak atzean Alkatxurain baserrian (2015).



Iñistorra mozteko eguna: Harrapazka Eguna

Iñistorra behar-beharrezkoa zen baserriko bizimoduan. Honela, ñistorrari loturiko kontuak, ohiturak, erabilerak eta kontakizunak ez dira gutxi. Eta kontakizun horien artean, galdetuko bagenu, gutxi batzuk, Hernanin, oraindik aipatuko ligukete bazela ñistorra mozteko egun berezi bat: Harrapazka Eguna.

Zehatz esanda, Harrapazka Eguna ñistorra ebakitzeko garaia irekiera ematen zion eguna zen. Hau ospatu arte debekatua zegoen ñistorra mozteko, multa jasotzeko arriskuarekin gainera. Egun handia zen zinez, zituen berezitasunengatik, eta baita zuen garrantziagatik ere.

Esanguratsua da, esaterako, euskaldunok hilabeteen deituren artean iraila izeneko hila izatea. Iraila tira(tze)aren edo ñistorraren hilabetea da. Ñistorra gorritzen hasten den garaia, eta beraz, mozteko une aproposa. Bada orduantxe, iraileko Amabirjin Eguren inguruan (irailak 8) ospatzen zen urtero Harrapazka Eguna. Udalak bandoa ateratzen zuen herritarrei noiz eta non izango zen jakinarazteko, eta bertara nahi zutenek joateko eskubidea zuten, herrilurretan egiten baitzen. Askorentzat ñistorra doan

ebakitzeko eguna zen; Udalarentzat, aldiz, ñistorra mozteko kudeatzeko edo erregulatzeko modua zen. Izan ere, Harrapazka Eguna bere legeak zituen eta horiek ez betetzeak zigorra zekarren.

Familia bakoitzetik bi-lau -urtearen arabera- pertsonak baino ezin zuten parte hartu eta bertara igitaia baino ezin zitekeen eraman ñistorra mozteko. Arau hauek zorrotz betetzen zirenaren lekuko gisa 1937. urtean jasotako salaketa bat dugu. Bertan, landazainak salatzen zuen auzoko familia batetik bi joan beharrean lau joan zirela (11 eta 13 urteko semeak eta etxe nagusiaren bi anai) eta modu horretan harrapazkaren araua urratu zutela.

Harrapazka Egunean bertan, landazainak agindutakoan hasten ziren denak ebakitzen. Bakoitzak bere eremua markatzen zuen aurrena bertako ñistorra moztuaz. Lehia estua izaten zen: aldamenen zeudenek baino azkarrago mozteko garrantzitsua zen, norberaren eremua handiagoa izateko. Zenbat eta azkarrago moztu, orduan eta handiagoa partzela. Hori zen harrapazka, hitzak berak esaten duen moduan, ahalik eta gehien, ahalik eta azkarren ebakitzea, etxera ñistor gehiago eramateko. Behin buelta guztia markatuta, barrukoa mozten hasten ziren.

Aurreneko egunean igitaiarekin moztea baino ez zen libre izaten esan digu testiguetako batek. Iluntzen zuenean ematen zitzaion amaiera Harrapazka Egunari. Hurrengo egunean, leku eta ordu berean, inistorra mozten jarraitu zezaketen, baina segarekin moztea baimentzen zen. Horrela, inistor guztia ebaki arte, edo nahikoa hartu arte irauten zuen kontuak.

XVII. mendetik datorren ohitura

Bilatu ditugun Hernaniko Harrapazka Egunaren aurreneko aipamenak 1826koak dira, nahiz eta XVII. mendean dagoeneko Hernaniko dokumentuetan inistor mozketei buruzko aipuak ere azaltzen diren. Ez dakigu ordea, garai haietan mozketak hauek harrapazkan egiten ziren. Harrapazka Eguna, hasieran Hernaniko herri-lur eta zilegimendietan egiten zen. XIX. mende erditik aurrera, herri-lurak eta zilegimendiak lote eta partzeletan banatu ziren, eta horietako asko inistor-toki bihurtu ziren. Ordutik aurrera, Igoin mendiarren magalean, Igoin-sasi izeneko eremuan egin zen Harrapazka Eguna, 1941a bitartean. Urte horietan, legeak zertxobait aldatu baziren ere, helburuek lehengoan jarraitu zuten.

Hernaniko artxiboan oraindik gorderik daude harrapazkaren arauak adierazten dituzten dokumentuak. Bertan aipatzen dira, esaterako, izendatutako


egun batean tiroa bota arte ezin zela hasi, eta etxe bakoitzetik aritu behar zirenen kopurua mugatu egin behar zela. Arau hauen helburua liskar haiek saihestea zen.

Garai hartan inistorra gauza baliotsua zenez, aprobetxamendua erregulatua zegoen. Askotan mugako herriein ere tirabirak izaten ziren. 1786. urtean, esaterako, Astigarragako parrokoari publikata edo mezan irakurtzeko bandoa helarazi zitzaion esanez inistorra Hernaniko lurretan ateratzen harrapatzen zituztenei isuna jarriko zitzaieala.

Hernanin ez ezik, Harrapazka Eguna egiten zen, baita ere, Andoainen, Urnietan, Errenterian eta Oiarzunen. Herri bakoitzak bere ezaugarriak bazituen ere, oinarrizko legeak antzekoak ziren.

Bitxikeriz beteriko egun garrantzitsua

Hernaniko gure testiguen kontatzen digute nola urrutieneko baserrietakoek orduak egiten zituzten goizean Harrapazka Eguna egiten zen eremura iristeko. Amantarrak eramaten omen zituzten jantzita. Zakuetatik ateratako tela zatiekin eta beranduago paper-fabriketako mantekin eginiko galtzetin edo polaina modukoak, abarken gainean jartzen zituztenak. Eta zakutoan eramaten omen zuten jan beha-



Harrapazka Egunaren azken urteak Igoin-sasin egin ziren.

rreko guztia, jateko denborarik bazuten, behintzat... garrafoiak ere eramaten omen zituzten sagardo berriarekin, izan ere, zaharrenen esanetan, *“sagardo berriak harrapazka egunerako egina behar zuen”*. Iluntzean ere izaten omen ziren komeriak. Jendeak ilun-bistan ebakitzen jarraitzen omen zuen eta landazaina zelatan ibiltzen omen zen, arropak aldatu eta txapela alderantziz jantzita ea zein harrapatuko. *“Ilargitan lapurtu ederki egiten da”* esan digute barez.

Istiluak, lehia... eta auzolana?

Istilurik ere ez zen falta, itxuraz: *“Hi gure partzelara sartu haiz!, Guk ebakitako inñistorra jaso duk!... izan ere, harrapazka lehia zen. Eta horrek liskarrak eta komeriak ekartzen zituen. Udalak behin baino gehiagotan atera behar izan zituen bandoak legeak gogoraraziz. Baina inñistorra behar beharrezko lehena zen, eta horrek auzolanean lan egitera ere behartzen zituen bizilagunak.*

Inñistorramozteko garaiarenaurretik “aaldiya” (araldia) izenekoa egiten zuten (zenbait herritan *malo-bra* ere deitzen zioten). Araldia auzolanari esaten zitzaion; inñistor tokietara zihoazen gurdi bideak konpontzeko eta txukuntzeko egiten zen auzolanari. Bertara familia bakoitzak ordezkari bat eramateko betebeharra zuen eta ezin bazuen bidali, ordezkaria aurkitzea euren lana zen. Udalak bando bidez jartzen zuen eguna, eta bideak konpontzeko taldeak egiten zituen. Inguruan aurkitzen zituzten harri eta materialak erabiliz konpontzen zituzten gurdi-bideak. Gure testiguen, ordea, beste mota bateko kontuak ere gogoratzen dituzte. Izan ere, Udalak ardoa jartzen omen zuen doan eta ba omen zen jenderik, bertsoak botatzen bukatzen zuenik ere egun hartan...



Araldia (aaldiya) Urnietan. Argazkiaren jabea: Pepi Lasa. Lagatzaila: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna (MLKB).

Aaldiya eta Harrapazka Egunaren ondoren, ebaki eta mendian lehortzen utzitako inñistorraren bila gurdiekin joateko garaia iristen zen. Askok gune jakin batean egiten zuten zita gurdiekin, eta elkarrekin joaten ziren guztiak bata bestearen atzetik inñistorraren bila, *“trena bezala!, gurdi soinu ederrak ateratzen”* gure testiguen arabera. Familiakoen artean jende nahikoa ez, eta baserrien arteko auzolana ere izaten zen askotan, bai inñistorra jasotzeko, bai metak egiteko ere.

Pago zaharra, jauntxoak eta neska gaztea

Harrapazka Egunean batzuk *“herriaren kontura joaten ziren bazkaltzera”* esan digute. Nortzuk ziren horiek galdetuta azkar erantzun digute: Udaleko ordezkariak eta landazainak ere bertan egoten ziren, baita Aldundiko ordezkariaren bat ere, *“baina haiek jatetxetik ekarritako janaria jaten zuten, e? eta inñistorra ebaki gabe! Gure kontura!”*.

Lan makala ez zen izango halere udal ordezkariatzat egun horretan hara joan beharra, eta horregatik Udaletxeak bazkaria ordaintzen zien. 1861. urtean, esaterako, Fagollagan egin zuten hamaiketakoa eta bazkaria. Bazkaldutako jakien artean; haragia, oilaskoak, babarrunak, garbantzuak, txori-zoak eta nahiko ardo eta sagardo izan zuten. Postrea eta koparik ere ez ziren falta izan eta Ron botilak, patarra eta Jereza ederki edan zuten. Ordaintzen hasita ere sukaldariak eta zerbitzariak ere propina ederrak jaso omen zituzten. Hala dio behintzat Hernaniko artxiboan aurkituriko dokumentu batek.

Izan ziren urteak Igoin-sasin bertan “jauntxoek” Harrapazka ospatzen zen lekuan bertan bazkaldu zutenak ere. Igoin-sasin izaten omen zen pago zahar bat eta pago zahar haren azpian elkartzen ziren Hernaniko alkatea, garai hartako zinegotziak, Diputazioko guardak eta herriko guardak bazkaltzera. Bazkaria Epeleko Etxeberritik edo Fagollagatik ekartzen zieten. Antonio Santa Cruzek gogoan du nola Bernardina Marcok eraman izan zuen bazkaria hauentzat *“burun edo bizkarrian. Eta aberia libre bazan, aberiakin”*. Eta gogoan du ere pasadizo bat: udaletxekoei ardoa zatoan edatea gustatzen zitzaie eta Bernardina enbutu gabe igo zela konturatu omen zen Igoin-sasin bertan. Akola baserri-ra joan behar izan omen zuen enbutu bila, berriro Igoin-sasira bueltatu eta “jauntxoei” ardoa zatoan sartzeko. *“Ze amorraziyo ekarri zun! esan digu Antoniok”*.

Dokumentu zaharren arabera, 1891 urtean, esaterako, Udalak Modesta Astarberi 36 pezeta ordaindu zizkion Harrapazka Egunean zeuden 3 zinegotzietatik bazkaria Igoin-sasira igotzeagatik.



Antonio Santa Cruz (ezkerrean), senideekin Harrapazka Eguna amaitu zela 75. urteurreneko ekitaldian landaturiko pagoaren aldamenean.

Herritarrek jarritako izena

1826ko dokumentuan, “*corte de alhechos*” aipatzen da gure Harrapazka Egunari buruz aritzeko. 19-20an, ordea, Hernaniko alkate Gregorio Mendiak sinatutako bandoan “*corte de helechos conocido vulgarmente por arrapatzka*” idatzi zuen. Herritarrek urtetan erabilitako izena, beraz, izen ofizial bihurtu zen XX. mendearen hasierarako, eta Udalean bertan ere erabiltzen hasi ziren. Bost urte geroago, 1925an, agertzen da harrapazkari buruz ateratako aurreneko euskarazko bandoa. Eskuz idatzitakoa, gainontzekoak ez bezala. Zera dio: “*Alcate jaunaren partetic aicea ematen det, illonen 9 izango dala iñostorren arrapazca, ezdala izango astia coetiac bota arte lengo urtiatan becela*”. 1942an, harrapazka eguna ospatzeko egun bakarra falta zela, Ricardo Rezola alkateak deia egin zuen, kasu honetan ere euskaraz, hau ez zela egingo adieraziz: “*Alcate jaunak adierasten dizute. Arrapatzka debekatuba geldintzen dala Usoko mendiyen, aldaketa egindako lekubetan*”. Udalak ateratako bando honek eman zion bukaera Hernaniko harrapazka egunari.



Kepa Urreaga eta Inaxio Urreaga Agerre baserriko iñistor-metan (1962). Argazkiaren egilea: Felix Unzueta.

Harrapazka Egunaren azken lekukoak bizipenak



Antonio eta Pedro Santa Cruz anaiak Harrapazka Egunaren azken lekukoak dira.

Antonio Santa Cruzen arabera *“etxafe-roa bota ondoren, igitaiarekin inistor ahalik eta gehien ebaki eta xardearekin hartu eta pilatu ondoren gurdira eta etxera eraman. Harrapazka horixe zan”*. Pedro Santa Cruzek gogoan du egun jakin batean izaten zela eta baserri bakoitzetik bi lagun besterik ez zela libre aritzea. Bere ustez harrapazkan *“...inistorra ugarien hazten zen tokira agudo joan behar omen zen. Bestela...”*.

Auzotar batzuen esanetan harrapazkarekin eskan dalua eta liskarrak sortzen ziren, honi buruz Santa Cruz anaiek gehienetan errespetatzen zela diote, halere Antonioren iritziz *“sesioak aurki izango ziren bata bestearen eremuan sartuz gero”* edo Pedroren ustez *“biltzerakoan akaso aurrena joaten zena gero zuretik eramango zuen xardeskaren bat...”*

Joxe eta Patxi Artolaren ustez inistorra sakratua zen baserrietan. Joxeren arabera *“Hemen garai batean inistor asko biltzen zan, zergatik ardiak, behiak eta denetatik zian eta ordun denei bota behar ziozun”*. Patxiaren usteetan lurrarentzat inistorrarekin egiten den ximaurra hobea da.



Joxe eta Patxi Artola anaiak Alkatxurain baserrikoak dira, eta Akola Igoi ingurua ondo ezagutzen dute.



Santa Barbarako Agerre baserriko Kepa Urreaga eta Maria Rita Miranda.

Agerre baserriko Kepa Urreaga eta Maria Rita Mirandak gogoratzen dute beraiek gazte-txoak zirela inistorretara joaten zirela. Bidai luze hau egiteko idiek tiratutako gurdia eramaten zuten. Aitak Kepari *“jarri gainean eta horiek bazekitek bidea”* esaten zion. Bueltan askotan orga gainean lotan etortzen ziren eta Hernanira iristean Kale Nagusitik gora etxe-ko bidea hartzen zuten. Maria Ritak gogoan du orduan emakume gutxi ibiltzen zela inistorra mozten, bera izan zen horietako bat.



Hipolito Arregi eta Pepita Arbide orain gutxi hildako senar emazteak iñistorretan ibilitakoak ziren ere.

Hipolito Arregik garbi zuen azpigai bezala iñistorra baino hoberik ez zela. Pepita Arbideren arabera, iñistorra kargatu ondoren ganadua hartu eta handik Latxera kamiora ateratzen ziren eta gero Hernanira. Ereñotzuko auzotar batzuek oraindik gogoan dute Pepita sasoikoa zela, “*gizonak bezala*” aritzen zela iñistorra kargatzen.

Iñistorraren garrantzia toponimian txertatua

Ez dago zalantzarik, iñistorrarekin lotutako jarduerak mendeetan zehar garrantzia handia izan dutela gure herrian. Harekin lotuta gure hizkuntzan eta toponimian ere arrastoak geratu dira. Landareak berak Hernanin hartzen dituen izenak dira *garoa* (Lararterako mugan), *iñistorra* (gainontzeko guneeetan) edo *iratzea* (toponimoen arrastoetan). Eta hauei loturik ere bailaran zehar azaltzen dira: *iñistormeta*, *garosaila*, *iñistorsaila*, *garopila* etab.

Hernaniko toponimian honekin lotuta aipagarriak dira *Iñastorgorri* eta *Irazurdi* izenak. Iñastorgorriren kasuan Hernaniko artxiboko aipamenetan Martindegi auzoan den Ariztegi errekatxoaren inguruan kokatzen da. Luis Mari Zaldua zilegimendietako toponimiari buruz eginiko lan zabalean ere aipatu egiten du. Irazurdi toponimoaren kasuan hainbat aipamenetan Larregain inguruan kokatzen den mendixkaren izena da. *Ira* edo *Iratze* hitzarekin lotua izan daiteke eta bukaerako-*di* horrek toki edo lekua adierazi dezake. Honen antzekoak inguruko herrietan ere badira; *Irakurri* (Aranon) edo *Iragorri*.

**1941 urtean harrapazka egiteari utzi bazitzaion ere,
iñistorretara joateko ohiturak luze iraun zuen.
Aurrez hitzartutako eremuetan ebaki zitekeen bakarrik,
“lote” izeneko eremuetan.**

Esker onak

Elkarrizketaturiko lekuko guztiei eta Hernaniko Udal Artxiboko Jesus M. Gómez “Txuso”ri, Harrapazka Egunari buruzko ikerketan laguntza eman digutelako. Idurre Lekuona eta Eñaut Agirrerri ikerketan bertan parte hartzeagatik, eta Ereñotzuko Auzo Udalarri eta Gipuzkoako Foru Aldundiari “*Bizimodua auzolanian*” izeneko proiektua finantziatu eta, bide batez, Harrapazka Egunari buruzkoak ikertzeko aukera eman digulako.